

HAITI

IRAULTZA ETA MENDEKUA



LARRUN #266

IRAULTZAREN ORDAINA

EGILEA | **URKO APAOLAZA AVILA**

AZALA | **JOSEBA LARRATXE JOSEVISKY**

1 791ko abuztuan mundua astindu zuen iraultza batek. Eta ez zen European gertatu. Esklabotzan oinarrituriko sistema ekonomiko kolonial atlantiarra hankaz gora jarri zuten milaka beltzek Saint-Domingue uhartean: hainbat urtetako borrokaren ostean Haiti herrialde librea sortu zuten. Lehenaldia etabakarra izan zen esklaboek euren kabuz arrakastaz kateak hausten zituztena, metropoliaren uztarria askatu zuen

hemisferio horretako lehen kolonia ere izan zen, eta Amerika osoko lehen mugimendu iraultzailea. Orduan, zergatik dakigu hain gutxi historia horren inguruan? “Errepublika beltza” beste lurraldeetako esklabisten – tartean euskaldun ugari – amesgaizto bihurtu zelako, eta batez ere, azken 230 urteetan Haitik agerian utzi duelako Mendebaldea deitzen diogun horrek esplotaturiko herrialdeekiko duen zorra.

LARRUN HILABETEKARI MONOGRAFIKOA · ARGIAren 2.747 zenbakiarekin banatua.

JABEA: KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L. **HELBIDEA:** ZIRKUITU IBILBIDEA, 15. PABILOIA 20160 LASARTE-ORIA **TELEFONOA:** (00 34) 943 37 15 45

POSTA ELEKTRONIKOA: LARRUN@ARGIA.EUS **INPRIMATEGIA:** ANTZA KOMUNIKAZIO GRAFIKOA **DISEINUA:** MAITANE GARTZIANDIA

2021eko irailaren 26a

Abuztuaren 23an esklaboen salerosketa eta esklabotza-aren abolizioa gogoratze-ko nazioarteko eguna ospatzen da mundu osoan. UNESCOren biltzar orokorrak izendatu zuen horrela 2004an, 1791n Haitiko esklaboak matxinatu ziren eguna delako. “Errebolta horrek askatasunaren aldarrikapen unibertsala ekarri zuen berarekin, edozein denbora eta espaziotik harago”, dio Nazio Batuen erakunde horrek adierazpenean. Honen arabera, Antilletako irla hartan hasitako iraultzak eskubide zibilen eta herrien askapenaren aldeko mugimenduen ibilbidea markatu du azken 230 urteetan, gertaera hark izandako “espantsio efektuaren” ondorioz.

Baina paradoxikoa dirudien harreren, hain urtemuga garrantzitsua kasik isilik pasa da aurten ere. Alferrik saiatuko da irakurlea hemerrotekan aurkitzen egun horri buruzko aipamenik, apenas ohar instituzional labur bat eta ekitaldi xumeren bat –Bordelen egindakoa kasu, Toussaint Louvertureren omenezko eskultura aurrean-. Ez gaitu harritu ere, Wikipediako abuztuaren 23ko efemerideen artean Haitiko iraultzarik ez agertzea euskarazko, frantseseko, gaztelaniazko eta ingelesezko zerrendetan. Zergatik ezikusi hori? Zer hasi zuten esklaboek 1791ko abuztuaren 23 hartan, egungo sistema hegemonikoak oraindik itzalean eduki dezan?

Frantziar koloniaren iparraldean, Bois Caïman izeneko tokian, dozenaka esklabok budu zeremonia ezkutua egin zuten egun batzuk lehenago: animalia bat sakrifikatu, buruzagiak izendatu, eta zin egin zuten zuri guztiak sarraskituko zi-

tuztela, Dutty Boukman *hougan* edo xamanak gidatuta –operazioa eskala erraldoian antolatuta zegoen, bi urte lehenago Frantziar iraultza hasi zenetik ari baitziren konspiratzen-. Handik gutxira, abuztuaren 22ko gauean, ekaitz tropikal batek eskaini zien mendekurako aukera. Haizete eta zaparrada izugarrien erdian, Cap-Français hiri ondoko Morne Rouge basoaren soilgune batean elkartu ziren milaka eta milaka, su-

**HAITIREN PROIEKTU
ANTIKOLONIAL ETA
IGUALTARIO HARK
SOILIK ARRAKASTA IZAN
ZETAKEEN UNIBERTSALKI
HEDATUZ GERO.
HORREGATIK BOIKOTATU
DUTE, INTERBENITU,
SABOTATU, ZIGORTU,
GAUR DENA BIHURTU ARTE**

ziriak eta matxeteak eskuan zituztela. Zerri-odola edan ondoren, Boukmanek azken hitzak egin zituen: “Zurien jainkoak krimena bultzatzen du, baina beltzen jainkoak onberatasuna. Gure jainko onak agindu digu mendekatu ditzagula egin dizkiguten irainak. Berak gidatuko ditu gure armak eta lagunduko gaitu. Eraitsi dezagun hainbestetan negar egin arazi digun jainko zuriaren sinboloa, entzun dezagun gure bihotzetan dagoen askatasunaren ahotsa”. Hala kontatu zigun CRL James historialariak Haitiri buruzko *Jakobino Beltzak* liburu entzutetsuan¹.

Hortik ordu gutxira, Cap-Français inguratzen zuten iparraldeko lautada zabala, seguruenik frantziar inperioaren altxor ekonomiko preziatuena zena, su erraldoi bilakatu zen. Esklaboek, beste iraultza askotan bezala, euren sufrimenduaren jatorria zena suntsitzeari ekin zioten, nagusiak hil eta kafe eta kanabera sailak errauts bihurtu arte. Egund hartan 180 azukre etxalde eta beste 900 kafe, kotoi eta anil soro erre zituzten. Matxinadan gutxienez 1.000 zuri eta 10.000 esklabo beltz hil ziren, eta beste 25.000 inguruk mendira jo zuten. Une horretatik aurrera, Toussaint Louverture eta Jean-Jacques Dessalines buru zituztela, esklabo ohiek aurre egin zieten tropa frantziarrei, irlatik erabat egotzi eta 1804ko urtarrilaren 1ean Haitiren independentzia lortu zuten arte.

Haiti izan zen Amerikako lehen herrialde libre. Eduardo Galeanok esan zuen bezala, aurretik AEBek independentzia aldarrikatu zuten arren, 650.000 esklabo zituztelako oraindik, “eta esklabo izaten jarraitu zuten mende batez”. Haitik abolitu zuten esklabotza Ingalaterraren aurretik. Eta Haitik garaitu zuen Napoleon Bonaparteren gudarostea beste inork baino lehen. Askorentzat, historiako iraultza biolentoena, erradikalena eta osoena izan zen.

Europako eta AEBetako elite supremazistek ez zioten sekula barkatu hori egin izana, beste kolonietako klase herrikoengan txinparta piztu zuelako. Izan ere, Jean Louis Vastey intelektual haitiarrak gogorarazi moduan, proiektu anticolonial eta igualitario hark soilik arrakasta izan zetakeen unibertsalki hedatuz gero. Horregatik boikotatu dute, interbenitu, sabotatu, zigortu, gaur dena bihurtu arte.

¹ 1938an idatzia, *Jakobino Beltzak* liburua Haitiko iraultzaren historia kontatzen duen maisulantzat hartzen da. Hegoafrikako apartheidaren kontrako mugimenduak liburua erabili zuten erreferentzia moduan bere borrokarako. Cyril Lionel Robert James Trinidad uhartean jaio zen eta historialari afroamerikar marxisten xenda hartu zuen XX. mende hasieran, errusiar iraultzaren eraginpean. Karibeko herrialdeen askapen mugimenduen bestelako kontakizuna sortu zuen ikuspegi literario batetik.



LE MARRON INCONNU (Esklabo ezezaguna) eskultura Port-au-Princen, esklabotzaren abolizioaren omenez egina. Atzean, eraikin instituzionalak oraindik 2010eko lurrikararen zauriak dituztela. WIKIMEDIA / KRISTINA JUST

POBREETAN POBREENA

Haiti azkenetako lekuan dago NBE-ren Giza Garapenaren Indizean, Amerikako herrialde pobreena da eta 11 milioi biztanletik 4 milioik gosea pasatzen du egunero². Eskola eta ospitaleetan baliabiderik ez dute, eta egoera okertu besterik ez da egin 2010eko lurrikaraz eta 2020ko pandemiaren geroztik.

Segurtasun faltaren eta ezegonkortasun politikoaren enegarren epi-

sodia bizi du orain: uztailean gizon armatu batzuk Jovenel Moïse presidentearen etxean sartu eta tiroz hil zuten, haren emaztea larri zaurituz. Moïsek 2016tik zeraman agintean, AEBek eta *Core Group* deituriko herrialdeen talde batek –tarteetan Frantziako eta Espainiako estatuek– lagundutako operazio politiko bati esker; baina babes sozial eskasarekin eta Haitiko Kongresua berritze-ko hauteskundeak deitu gabe. Bere

inguruko enpresak ustelkeria sare batean nahastuta zeuden eta 2019ko auditoria baten arabera, Petrocaribe Venezuelako konpainiak petrolio hornidurarako emandako abantailetatik etekinak atera zituen. Egoera horren ondorioz herrialdean sorturiko protestak gogoz erreprimitu zituen presidentek, banda kriminal polizialez baliatuta.

Magnizidioa nazioarteko trama ilun batek antolatua izan dela kon-

² Nazio Batuen Elikadura eta Nekazaritzarako FAO erakundeko Adoniram Sanches enanetan, egun herritarren %48ak “gose gordina” jasaten du Haitin.

tatu digute hedabideetan, egunetik egunera eleberrri baten traza hartzen aritu den udako albiste horietako bat: hilketa Kolonbiako ejertzitoko 26 laguneko militar-ohien komando batek egina, Miami "segurtasun" enpresa pribatu batek kontratatu zituen, eta tartean dira, baita ere, AEBetan bizitako haitiar mertzenarioak, Venezuelako opositorak, Haitiko Justizia Ministerioko funtzionario-ohiak, AEBetako Estatu departamenduko kontaktuak... Ikuspegi neokoloniala duten medioek ustelkeria eta kontrabandoarekin zerikusia duen kontu garbitze batekin lotu dute krimen hori. Ikuspegi dekolonial batetik ordea, haitiarrek badakite nazioarteko potentzien esku-hartze bat gehiago dela honakoa. Oraindik ez dakigu nork finantzatu zuen operazioa. Eta Alberto Pinzón bakegile eta antropologo kolonbiarrak dioen bezala, galdera hau da: nori egiten dio mesede hilketa horrek?

LURRIKARAK ETA ISILTASUNA

Lurrikara politikoaz gain, benetako beste bat gehitu zaio Haitiko egoera nahasiari, hamaika urte lehenago gertatutakoa gogorarazi duena: abuztuaren 14an Richter eskalan 7,2 graduko dardara neurtu zen Petit-Trou-de-Nippes komunan, mendebaldean dagoen Tiburon penintsulan. Nazio Batuen arabera, ofizialki 2.200 hildako baino gehiago eragin eta beste milaka herritar baliabide gabe utzi ditu. Gainera, ekaitz tropikalak gogor ari dira astintzen berriz uhartea, aurreko urteetan Matthew, Sandy edo Irma urakanek egin bezala. Klima larrialdiaren enbata modu gordinean ari dira jasaten haitiarrak, baina Greg Palast BBCko kazetariak 2010eko lurrikara gertatu zenean azaldu zuen bezala, natur hona-

mendiak ez dira existitzen. "200.000 haitiar sakrifikatu dira auzuneetako etxebizitza baldintza eskasen eta Nazioarteko Diru Funtsaren 'austeritate' planen ondorioz"³.

Haiti ez da "huts egindako" herrialde bat, interferentzia inperialistek sarraskituriko ezlekua baizik. Bere historiaren bigarren zati hori ez du kontatzen UNESCOren 2004ko adierazpenak, eta hori gabe, noski, ezin ulertu nazioartearen isiltasuna. "Haitirekiko nazioarteko politikak aldatu egin behar du!" aldarrikatu du munduko 150 erakunde baina gehiagok iaz hasitako *Stop Silence Haiti* kanpaina barruan –tartean daude Attac, Nazioarteko Sindikatuen Konfederazioa, Via Campesina, zor bidegabearen kontrako CADTM elkarte...–; haitiarraren burujabetasuna errespetatzea exijitu dute eta esku-hartze oro salatu. Erakundeok, herritarrek gidatutako trantsizio bat babesteko eskatu diote nazioarteari, Jean-Claude Duvalier *Baby Doc* diktadorearen erorketaren ondoren onartu zen 1987ko konstituzioan oinarritua.

Izan ere, asko dago jokoan Haitin. Kolonialismoak eta interbentzionismoak hondakin bihurtutako sinbolo emantzipatzaile baita, gogorarazten duena esklabotzaren eta indarraren bidez aberastu diren munduko potentziek asko zor dietela herrialde txiroei, ez alderantziz.

GENOZIDIOTIK ESKLABOTZARA

Kristobal Kolonek 1492an La Isla Española izendatu zuen irlan hanka bat jarri orduko, han bizi ziren Taino herriko biztanleek ongi torria egin zieten. Arawak hizkuntzaren aldea bat hitz egiten zuten –hortik dator Haiti edo kreoleraz *Ayiti* hitza, mende batzuetara iraultzaileek berreskuratua⁴. Baina jokabide adei-

tsu horrek baino, europarrek beraien belarrietan zintzilik ikusitako urrezko apaingarriek markatu zuten jatorrizko herri horren patua.

Berehala, espainiar inperioaren zat konkistaturiko Amerikako lehen lurralde bihurtu zen irla. Hogei urteren buruan milioi erdi biztanletik 10.000 lagunera kimatu zen populazioa, asko *encomienda* sistemaren bidez urre-meatzeetarako esklabo bihurtuta, eta gehienak inbaditzaileek eramandako gaixotasunek hilda, 1507an lehen aldiz baztanga izurrittea hedatu zenetik.

Genozidio horren ondoren, kontinente "berria" birpopulatu beharreko eremu birjin gisa erakutsi nahi izan digute garaian garaiko kronista eta gortesauk, baina azkenaldian gero eta gehiago dira jatorrizko herrien existentzia eta eragina aldarrikatzen duten komunitateak –Antilla txikietan, adibidez, kalinagoen hizkuntzak gaur arte biziraun du eta haien tradizio arkitektonikoa erabiltzen hasi dira berriz, egurrezko etxolekin urakanei aurre egiteko-. Gero eta gutxiago dira Amerikaren historia 1492an erreseateatu zela dioten falazia bereganatzailearen irensten dutenak.

Lan esku defizita konpontzeko, 1517an Carlos I.a espainiar enperadoreak baimena eman zuen Afrikako esklabo beltzak garraiatzeko kolonia berrietara. Lehen bidaia horiek euskaldun batzuek antolatu zituzten: Enkarterrietako Urrutia osaba-illobek hain zuzen, esklabotzari buruzko 2020 ekaineko *Larrun*-en azaldu genuen bezala (253 zk.). Halaxe hasi zen Haitiren tragedia, bere egitura ekonomiko, sozial eta kulturala definituko zuena.

Kontrabandoa zen Hispaniolan etekin ekonomikoa lortzeko bide errazena, toki estrategikoan egon izaki. Pixkanaka, frantziar eta ingeles

³ Josep Fontanaren *Por el bien del imperio* (Pasado y presente, 2011) liburuan aipatua.

⁴ "Lurralde menditsua" esan nahi du jatorrizko hizkuntzan.



Hispaniola edo Saint-Domingueren 1749ko mapa. Irlaren mendebaldean sortu zen Haiti, 1804ko independentziaren ondoren.

bukanero, pirata eta kortsarioen topaleku bihurtu zen, Dortoka uharte txikitik pauso batera baitzuten irlako iparraldeko lautada zabala. 1697an, Europako gerra eta bake tratatuen truke-txanpon bihurtuta, ekialdea, egungo Haiti, Frantziaren esku geratu zen Saint-Domingue izenarekin, eta hortik aurrera irla osoari horrela ere deitzen hasi zitzaion⁴.

XVIII. mendearen lehen erdialdean, frantziar koloniek aurre hartu

zieten ingelesez *Sugard Islands* delakoei, eta batez ere Saint-Domingue zen azukre esportatzaile nagusia, berak bakarrik munduko merkatu libreko eskariaren erdia ase zezakeen. Kafearen merkatuan ere nagusigoa hartzeko zorian zen; kakaoa, kotoia... frantziarrek kontsumitzen zuten hori guztia han produzitzen zen eta metropoliaren aberastasunaren herena suposatzen zuen hainbat iturriren arabera⁵. Saint-Domingue zen Ame-

rikako kolonia aberatsena, Jamaika edo Kubaren aurretik.

TORTURAREN TERRITORIOA

Horretarako baina, beharrezkoa zen derrigorrezko lana modu intentsiboan garatzea, zigorra erabiliz. “Indarkeria da kapitalaren ama” idatzi zuen Manuel Moreno Fraginals historialari kubatarrak. Hainbat kalkuluren arabera, Haitiko iraultza aurretik urtero 29.000 esklabo eramaten

⁴ Erreportaje honetan Saint-Domingue deituko diogu koloniar edo kolonialismo garaiko irlari, eta Haiti herrialdeari berari.

⁵ Noam Chomskyren arabera Frantziak bere aberastasunaren %20 “haitiarren torturaren bidez” lortu zuen, eta “egun tamalez jarraitzen du horrela” (*Le Monde Diplomatique*, 2015eko apirila)

zituzten irlako kanaberetara, zientoka mila denbora gutxian. Esklabo beltzak “odol berriarekin” ordezkatu zitezkeen, produkzio kate oso baten baliabide huts bezala ikusten baitziren. Bizitzen xurgagailu horretan, askok apenas irauten zuten bizpahiru urte. 1804an, hamar urteko iraultzaren ondoren Haiti independentzia aldarrikatzeko zorian zela, frantziar kolonizatzaile burgesen mentalitatea ez zen aldatu: uharteko beltz guztiak hil behar ziren, eta askatasunaz eta berdintasunaz ezer ez zekiten beltz gehiago inportatu.

**HAITI TORTURAREN
TERRITORIOA IZAN
ZEN XVIII. MENDEAN.
MUNDUAN INON BIZITZEA
SUFRITZEA BAZEN, HORI
HAITIN GERTATZEN
ZEN, AZAL BELTZA
ZUTENENTZAT**

Europar, Frantziako kostalde atlantikoko hiriak esklabotza trafikoan espezializatu ziren, batez ere Nantes eta Bordele, baina baita Baiona bezalako hiri txikiagoak ere. Azukrea munduan irabazi gehien ematen zuen produktu komertzial nagusia bilakatu zen, eta hori ezinezkoa litzateke terrorearen eta izuaren *Mordor* antzeko bat sortu gabe. Haiti torturaren territoria izan zen XVIII. mendean. Munduan inon bizitzea sufritzea bazen, hori Haitin gertatzen zen, azal beltza zutenentzat.

Desnutrizioa zen esklaboen etsai nagusia, zigorra maiztasun handiagoz jasotzen baitzuten elikagaiak baino. “Azoteak gelditzen zirenean, egur gori bat pasatzen zen biktimen ipurmasailtan (...) mutilazioak ohi-

koak ziren eta jabeek irakiten zegoen argizaria jaurtitzen zieten esku eta sorbaldetan; bizirik erretzen zituzten, pixkanaka, su baxuan; dinamita-rekin igurtzi eta pospoloarekin pizten zituzten; leporaino lurperatzen zituzten eta burua melazarekin igurtzi euliek irentsi zituzten; euren gorotza jatera derrigortu...”, hala kontatu zigun Jamesek *Jakobino beltzak* lanean. Egia ote? Froga ugari daude baietz esateko.

Adibidez, azoteen bidezko torturak milaka finketa zituen: eskailera-rena, hamakarena, lau hankatakoa, lepokoarena... azkeneko hori bereziki diseinatua zegoen emakumeek ez zezaten abortatu. Zergatik iritsi zen kolono zurien ankerkeria maila horretara? Beharrezkoa al zen? Erantzuna Jamesek berak eman zuen: “Zailtasun bat zegoen: piztiak bezala harrapatu zitezkeen, animaliak bezala garraiatu, astoak bezala lan eginarazi, haiei jotzeko makila bera erabili, hesituretan giltzapetu eta gosez akabatu. Baina azal beltza eta ile kizkurra gorabehera, gizaki garaiezinak izaten jarraitzen zuten, gizakien adimen eta erresuminarekin. Haiengan otzantasuna eta onarpena sortzeak basakeria erregimen kalkulatu eskatzen zuen, eta hori da jabeen jokabide ezohikoa azaltzen duena, itxuraz ez baitzeukaten beren jabetza mantentzeko ardurarik; beren segurtasuna bermatuzetik hasi behar zuten”.

**DESBERDINTASUNAREN
UHARTEA**

Ez da harritzekoa beraz, esklaboek askatasuna lortzeko erakutsitako egoskorkeria –“Askatasuna ala hil” izan zen Haitiko lehen konstituzioaren lelo nagusia-. 1791ko altxamendua ez zen izan bat bateko kontzientzia hartze bat, aurretik beste makina bat saiakera egin ziren. Esaterako, pozoia izan zen suntsiketarako arma garrantzitsuenetako bat. 1751n 3.000 esklabo inguruk men-

dira ihes egin zuten –*cimarrón* edo *marronnage* deitzen zitzaaien hala koei- eta haien buruzagi François Mackandal budu apaizak kolono zurien aziendak eta putzuak pozoitze-ko plana ideiatu zuen sei urtez; baina azkeneko harrapatu eta plazan erre zuten denen aurrean. Askoren imaginarioan, ordea, trantze horretatik bizirik irten zen, airean sugarrak jaurtitzen zituen bitartean.

Budua eta kreolera esplotaturiko estratu sozialen autodefentsarako euskarri nagusietakoak ziren. Haitin praktikatzen den budu erlijio sinkretikoak badu Afrika mendebaldeko tribuen sinesmenetatik zati bat, eta kreole hizkuntzak ere esklaboen jatorrizko lengoaietatik edan izan du; baina ez dira arbasoen jatorrira itzulerara soil bat, ezin litezke ulertu esklaboek Amerikan jasandako mendetako zapalkuntzarik gabe eta, Haitin bereziki, desberdintasunetik bizi zen jendarte konplexuari so egin gabe.

Haitiko piramide sozialaren oinarri erraldoia esklaboak ziren. Horien gainetik zeuden *gens de couleur* edo mulatoak –batzuk lurjabe bihurtuta-, esklabo izandako beltz libreak, kolono zuri *txikiak*– asko mulatoak baino behartsuagoak-, eta azkenik, irlan agintzen zuten zuri *handiak*. Baina azkeneko hauen artean ere bazeuden diferentziak, batez ere merkataritza bizi ziren burgesen, errege-ofizialen eta azukre zein kafe sail handien jabeen artean. Eric Williansek kapitalismoa eta esklabotzari buruz hitz egitean dio kolono zuriek 40.000 laguneko biztanleria osatzen zutela, mulato eta beltz askeek 28.000, eta esklaboek 458.000; azken horiek gabe “Saint-Domingue itsasoaren hondoan egongo litzateke”. *Status quo* horretan, zuri kolono txikien, aberatsen eta mulato lurjabeen artean ezinikusi franko zegoen, elkar gorroto zuten.

Atlantikoaren bestaldetik 1789ko frantziar iraultzaren berriak iritsi zirenean, denek apro-



Baionan esklabo trafikoan erabiltzeko itsasontziak eraiki ziren, besteak beste, eta hiriko ontzigintzaren garapenean eragin zuzena izan zuen negozio horrek. GAIZKA IROZ

Baiona esklabo trafikoaren sareetan

XVII. mende erdialdetik XIX. mendera arte Frantziako erreinuko kostalde atlantiko-tik 4.220 espedizio abiatu ziren Afrikara, beltzak ontziratu eta Amerikako kolonietan esklabo bezala salduak izateko, Nanteseko Abolizioaren Memorialak emandako datuen arabera –hiri hartatik bakarrik 1.714 espedi-

zio irten ziren-. Esklabotza aberastasun iturri izan zen Nantes eta Bordele bezalako hiri handientzat, eta ez lirateke gaur egun direna izango negozio hura gabe. Baina hiri txikia-goetako tratulariak ere aberastu ziren giza-gorputzak salerosiz, tartean Baionakoak.

Mémoires et Partages (Oroimenak eta partekatzeak) elkarte anti-arrazistaren esanetan, denbora horretan Lapurdiko hiriburura deportaturiko beltzak gutxienez 4.500 inguru izan ziren, eta Baiona zortzigarren portu *négrierra* izan zen, Arroxela, La Havre, Sant-Maloù eta beste batzuen ez oso atzetik. Jean Mettas historialariak egindako ikerlan batetik ondorioztatu daiteke XVIII. mendean hamar barku irten zirela kostalde afrikarrean esklaboak

bahitzeko helburuz; esaterako *L'Heuse* (Zoriontsua) izenekoak, Pierre Dolhondek gidaturik 249 esklabo eraman zituen Haitira 1765ean. Eta ontzigintzaren garapenean ere nabarmen eragin zuen giza-trafiko horrek, Baionan egiten ziren itsasontzietako asko Nantes edo Bordeleko ontzigileentzat izaten baitziren. Tratulari baionarren artean Cabarrús anaiak zeuden –Dominique-Denis eta Dominique Eugène-, zeinak *Roy-de-Cabinde* edo *Roy-de-Malimbe* izen exotikoak jarri zizkieten Ginea eta Angolako portuetatik Haitiko Cap-Françaisera bidaia hilgarriak egiten zituzten fragatei.

Euskaldun, biarnotar eta gaskoi kolonizatzaileek Haitin utzitako arrastoa itzela da. Adituek beharra adierazi dute parte-hartze horren

kopuruak hobeto zehazteko, milaka izan baitziren Saint-Dominguera joan zirenak lurra bereganatu eta esklabotzaz aberasteko asmoz. Mémoires et Partagesek dioenez 30.000 kolonizatzaileetatik %40 Akitaniako eskualdekoak ziren; ez alferrik Jacques de Cauna ikerlari bordeldarrak “Akitaniako El Dorado-a” deitu dio lurralde hari. Haitin oraindik badaude esklabista euskaldunak gogorazten dizkiguten toponimoak, hala nola Labadie, Garat, Navarre, Carrère... “Baionako merkatal familia handiak Saint-Domingueri erabat lotuta zeuden”, azaldu zuen De Caunak *Sud Ouest* egunkarian publiko egindako artikulu batean.

LA NEGRESSE

Kolono horietako askok, *kriollo* edo indianoen hantustekeriaz, sorterrira esklaboekin itzultzeko ohitura hartu zuten, sukaldean edo zerbitzuan aritzeko; esplotazio horren arrastoa suma liteke Lapurdiko hirietako zenbait tokitan. Ezagunena, seguruenik, Miarritzeko tren-geltoki ondoko La Negresse auzoa dugu, euskaraz betidanik Harausta edo Heustarre deiturikoa. Dirudenez, Napoleon Bonaparteren soldaduek hango ostatu bateko zerbitzari beltzari jarritako ezizena omen da *La Negresse*; 1986an Herriko Etxeak euskarazko jatorrizkoa kendu eta izen ofizial hori jarri zion auzoari.

2019ko abuztuaren 22an, G7ren gailurraren bezperan, Mémoires et Partages elkarteak informazio-ekin-tza egin zuen Miarritzeko tren-geltokian, izen horren izaera umiliagarria salatzeke, eta Karfa Sira Diallo idazle eta elkartearen sortzailea modu bortitzean atxilotu zuen poliziak. Paueko auzitegi batean jarraitzen du kontuak. Nolanahi ere, ekintza horren ondorioz eta izandako oihartzunaren ondoren, elkarteak lortu du zenbait tokitan izenak aldatzea; abuztu honetan bertan tren-geltoki ondoko farmaziak La Negresse izateari utzi dio.



Karfa Sira Diallo atxilotzeko unea Miarritzeko tren-geltokian, G7 gailurraren bezperan. MÉMOIRES ET PARTAGES

ESKLABOAK DONIBANE LOHIZUNEKO ZIEGAN

Ohikoena esklaboak Afrikatik zuzenean Amerikara eramatea zen arren, zenbaitetan eskalak egiten zituzten, eta merkataritza trafikoko beste produktu baten antzera biltegitratzen zituzten gizakiok denbora batez. Euskal Herrian ere bazeuden halako tokiak, ez portuetan soilik, baita gazteluetan ere.

Kepa Arburua Olaizola ikerlariak 2013an kaleratutako *Belzenia, prison d’esclaves noirs au Pays basque* (Beltzenia, esklabo beltzen kartzela Euskal Herrian) liburuan, azaltzen du Ziburu eta Donibane Lohizune artean dagoen Beltzenia jauregian esklaboak giltzapetzen zituztela, oraindik zutik dagoen 40 zentimetro lodierako paretak zituen ziega ilun batean. Gardien etxolak ere mantentzen dira eta, garaiko dokumentuen arabera, ehun esklabo baino gehiago pilatu zituzten bertan.

Toki hori lotuta dago Haitiko hiriburu den Port-au-Princeko alkate izandako Michel Joseph Lereboure doninbandarrarekin. Saint-Dominquen kafe-plantazio handiak zituen

Lereboure –besteak beste *Donibane* izeneko bat– eta 1802an, Urruñako François Harismendy kapitain esklabistari agindu zion Senegalgo Goree irlatik beltzak eramateko, gero AEBetan saltzeko. Harismendyren ontziak eskala egin zuen Lapurdin eta Beltzenian eduki zituzten preso esklaboak.

Lereboure anti-abolizionista amorratu zen eta, 1791n esklaboen iraultza lehertu zenean koloniatik erbesteratu zen. Bere jabetzak berreskuratzeko asmoz itzuli zenean, Jean-Jacques Dessalines jeneral independentistak atxilotu eta fusilatzeke agindu zuen. Lerebourearen seme Paul Donibane Lohizuneko alkate izan zen geroago eta herri horretan Luis XIV.aren jauregi dotorea zuen familiak, Antilletako diruarekin eresia seguruenik.

Ezin uka badirela euskal pertsonaia garrantzitsuak abolizionisten eta iraultzaren alde borrokatu zirenak, Jean-Baptiste Gerard diputatua kasu, denak ez ziren esklabista. Baina negozio ilun horren inguruan zenbat eta gehiago ikertu, orduan eta sakonagoa da gure iragana inguratzen duen lokatza.

**NAPOLEONEK
28.000 SOLDADUKO
GUDAROSTEA ANTOLATU
ZUEN ESKLABOTZA
BERREZARTZEKO;
EUROPATIK AMERIKARA
SEKULA BIDALI DEN
ESPEDIZIO MILITARRIK
HANDIENA IZAN ZEN
HURA**

betxatu nahi izan zuten koiuntura nahasi hura, batzuk negozio handiagoa egiteko, bestetzuk eurentzako eskubideak lortzeko. 1791ko urte hasieran mulato aberatsak matxinatu ziren, Vicent Ogé izeneko merkataria ilustratuak gidatuta. Ama beltz librea eta aita zuri tratularia, Bordelen ikasi zuen, eta txikitatik Europako haize iraultzaileetatik edan zuen. Hala, Haitira itzuli zenean, *Le Amis de Noirs* elkarte abolizionistaren laguntzarekin errebolta hasi zuen: “Baina eztabaidagai zegoena mulatoentzako berdintasuna zen –dio Williamsek–. Inork ez zituen esklaboak aipatu ere egin”. Nolanahi ere, kolono zuriak mestizoak zapaldu eta Ogé hil zuten, gurgil batean hezur guztiak hautsiz. Maximiliem Robespierre eta Parisko beste lagun erradikal jakobinoen izu eta salaketa oihuak Cap-Françoise-tik entzun ziren. Baina Haiti ez zen Frantzia, eta hango zuriak ez zeuden prest euren pribilegioak galtzeko.

Herialdeak 1804an independentzia aldarrikatu zuenean, azal kolorean oinarrituriko estratifikazio eta aurreiritzi horiek hankaz gora jarri zituen. Konstituzioaren 14. artikularekin amaitu zen eztabaida: hortik aurrera Haitiko herritar guztiak “beltzak” deituak izango ziren, zein nahi kolorekoa izanik ere. Egungo Haitin atzerritarra zuria da, berta-



TOUSSAINT LOUVERTURE. Esklabo iraultzaileen liderrak Frantziar errepublikaren baloreekin bat egin zuen. WIKIMEDIA

koa berriz, beltza. Arrazializazioak ez du, beraz, zerikusirik kolorearekin, “beltz” hitza kontzeptu politiko bezala ulertzen da. Baina ez ditzagun ondorioak aurreratu.

TOUSSAINT LOUVERTURE: ESKLABOAK EKINTZARA

Hasiera haietan *Liberté, Egalité, Fraternité* printzipio politikak ez zeuden beltz esklaboentzako eginak, antza denez. XVIII. mendean, askatasunaren diskurtsoak esklabotzan zuen kontraesan nagusia, Europako inperioen gorakada afrikarren hanka-hutsetan jarritako bilurrek hauspotu baitzuten. Hala, Haitiko gertaerek aurrera egin ahala, iraultza frantsesaren inkongruentzia horiek age-

riago geratu ziren, eta abolizioaren inguruko eztabaida areagotu egin zen. Susan Buck-Morss pentsalariak Hegelen jabe-esklabo dialektikak Haitiko iraultzarekin duen loturaz idatziriko saiakeran dioenez, askatasun unibertsalaren ideiarenean ondorio logiko posible bakarra esklabotzaren abolizioa zen, baina “hori ez zen gertatu iraultzaile frantsesen ekintza edo ideiangatik; baizik eta esklaboak berak ekintzara pasa zirelako”.

1791ko abuztuan ke beltz batek eguna gau bihurtu zuen Haitiko iparraldean. Esklaboak euren patuaren jabe egin ziren Boukman apaizak gidatuta, eta iraultza beste lurraldeetara zabaldu zen azkar. François Dominique Toussaint Bredakoa, ondoren



Vertièreseko bataila 1803ko urrian gertatu zen Cap-Français hirian. Ez da Waterloo bezain ezaguna, baina han gertaturikoak munduko botere harremanak aldarazi zituen.

Toussaint *Louverture* edo “abiarazlea” izenez ezaguna, iraultza horren protagonista nagusia bihurtu zen laster.

Esklabo ohia izanik ere –1776an lortu zuen askatasuna–, beste askok ez bezala Toussainten sorbaldek ez zuten sekula makilarik probatu eta jabeak nolabaiteko kultur maila izatea baimendu zion; hala, garaiko obra klasikoekin ikasi zuen leitzen eta idazten. Baina batez ere, bere izaeragatik nabarmendu zen. Kontaezinak dira burkide zein arerioek aitortzen zizkieten bertuteak: auto-kontrola, diplomaziarako eta hizketarako abilezia, etsaiekiko gupida, gertutasuna, energia... Horrela lortu zuen bere inguruan batzea Haitiko gizarte konplexua osatzen zuten

sektore ezberdinetako jendeak, zuri asko barne.

“Langile beltz soiletetik hasi eta frantses jeneraletaraino, edo hezie-nak, kosmopolitenak eta eskarmendunak ziren zurietaraino, denek onartzen zuten, bere lana eta idiosinkrasia pertsonalagatik, Toussaint zela Saint-Domingueko lehen pertsonalitatea”, idatziko du Jamesek. Historialariak birritan konparatzen du lider haitiarra Napoleón Bonaparte eta Abraham Lincoln bezalako pertsonaiekin, eta sinetsita agertzen da, historia hau Toussaint gabe guztiz ezberdina litzatekeela: “Ezinezkoa da erabakitzea non amaitzen diren indar sozialak eta noiz hasten den bere nortasunaren arrastoa”.

BRITAINIARREN HILOBIA LEHENIK...

Toussaint hasieran ez zen iraultzara batu, nahiago izan zuen bere jabe ohiaren azientak babesten gertatu. Baina su-bolak gerturatu ahala, konturatu zen bizimodu aldaketa bat posible egingo zuen garaia iritsi zela. Hala, familia babesean utzi eta 45 urteko gizaseme ile-urdundia, Toussaint zaharra, errebeldeen kanpamenduan sartu zen. Hor hasi zen dena.

1791tik 1804ra arteko prozesua benetan izan zen korapilatsua, eta iraultzaileek estratagema nahiz norabide aldaketa etengabeak egin behar izan zituzten bizirauteko. Lehenik espainiarren alde borrokatu



2021eko ekainean nekazarien manifestazioa Monwi hirian, Jovenel Moïseren politiken kontra. Hortik hilabetera hilko dute presidente haitiarra operazio ilun batean. Ikuspegi dekolonial batetik, haitiar askok badakite nazioarteko potentzien esku hartze bat gehiago dela honakoa. MST

ziren, hauek uhartearen ekialdean ustez askatasuna hitzemanik; baina gero, Léger-Félicité Sonthonax eta Etienne Polverel frantziar komisarioek –azken hau biarnotarra eta Baionan abokatu aritua– Saint-Domingueko beltz guztien emantzipazioa dekretatu zuten, eta Konbentzio Nazionalak kolonietako esklabotzaren abolizioa deklaratu zuen 1794ko otsailean. Hala, Toussaint eta bere tropek bandoz aldatu zuten, espainiarrak euren lurralderantz egotzi –testuinguru horretan trukatu zuen Frantziak espainiar kolonia euskal lurraldeekin, 1795eko Basileako Itunean– eta hauen aliatu ingelesen inbasioari aurre eginez.

Toussaintek AEBetako independentzia gerran soldadu bezala arituz ikasi zituen gerrillako teknika militarrik aplikatu zituen hasieratik

Haitin, arrakastaz. Hala lortu zuen milaka soldaduz osaturiko britainiar gudaroste inperiala iparraldeko kostaldean zokoratzea, Thomas Maitland teniente jenerala eta gertzen ziren soldadu ingeles apurrak 1798ko azaroan irlatik betirako bota arte, negoziazio umiliagarri baten ondoren. 50.000 hildako –asko sukar horiak jota– eta beste hainbeste zauritu eragin zizkien britainiarrei Haitiko espedizioak, eta *London Gazette*-k ahobizarririk gabe onartu zuen koloniaren independentzia suposatzen zuela horrek.

Baina Haitik Frantziar Errepublikari lotuta jarraitzen zuen. Toussaint zen bere balioak eta interesak defendatzen lehena, Errepublikan sinesten baitzuen guztiz, esklabotzaren abolizioa ekarri zuen iraultzaren ondorio zelako. Lider beltza saiatu zen

plantazioetako sistema ekonomikoa berriz martxan jartzen –Ingalaterra eta AEBekin merkataritza akordio sekretuak eginez–, herritarrei formazioa eskaintzen, birrinduta zegoen lurralde hura berriz altxa eta orduko balore errepublikar eta modernoetan oinarrituriko herrialde bat erakitzen.

Karl Marxen hitzetan iraultza da historiaren “lokomotora”, eta orduan ere ez zen geldirik egon. Barne liskarrek, erreboltek, amarruek eta zernahi jokabide ilunek zangopilatu zuten urte horietan Haiti gobernatzeko nahia, esaterako irlako hegoaldea menperatzen zuen André Rigoud mulatoen buruzagiarekin etengabeko lehia izan zuen Toussaintek, azkeneko garaitu zuen arte. Ingelesek, irla kanpotik bazen ere, konspiratzen jarraitzen zuten esklabo lana eta



2010eko lurrikararen ondorioak. 200.000 lagun hil eta milioika etxerik gabe geratu ziren. Hondamendi hori saihestu zitekeen, Haitiren pobrezia egoera azaltzen duen iraganeko esklabotzaren historia gabe. WIKIMEDIA

merkataritza mantentzeko asmoz. Parisen, berriz, Termidorrak ekarri zuten Direktorioa eta Brumario kolpeak Napoleón.

... NAPOLEONEN TROPEN HILOBI ONDOREN

“Ez dut utziko kolonia horretan uniforme baten sorbaldakorik beltz bakar baten sorbaldetan!”, esan zion Napoleón Bonapartek Vincent koronelari, honek Haitirentzako konstituzio baten proposamena eraman zionean. Bonapartek gorroto zituen beltzak, gai zen *beltz* hitza “listua balitz bezala ahotik jaurtitzeko, esklabo trafikante onenaren estiloan”, Jamesen aburuz.

Errepublikaren sinboloetako bat zen esklabotzaren abolizioa ezbaian zen berriz metropolian, eta jeneral kolpistak aukera probestu nahi zuten

Haitiri estatus hura kendu eta derri-gorrezko lana berrezartzeko. Baina bazekien ez zela erraza izango, eta 28.000 soldaduko gudarostea antolatu zuen horretarako, Charles Leclerc jeneralaren gidaritzapean; Europatik Amerikara sekula bidali den espedizio militarrik handiena izan zen hura. Toussaint eta bere buruzagien estrategia izan zen inbaditzaileek parean topatu zezaketen guztia aurrez deuseztatzea eta mendietara erretiratzea gerrillarekin hasteko: “Zergatik erretzen duzue dena? Galdetu zion ofizial frantses batek preso bati. Gure soroak erretzeko eskubidea dugu, gizon (sic) batek laneko bere tresnak edukitzeko eskubidea duelako, erantzun zuen anarkista anonimo honek”, irakur liteke *Jakobino Beltzak* liburuan.

Urte eta erdiren buruan, baliabide faltak, euriteek eta sukar horiak

sekulako triskantza eragin zuen Leclercen tropen artean. Baina halako batean, Toussaint atxilotu egin zuten, negoziazio batzuetan trikimailu bat erabilia, eta eskuak lotuta ontziratu zuten irlatik urrun. Askoren ustez, etsaiarekiko bere konfiantzak eta oraindik Errepublikan sinesteak eraman zuten galbidera lider haitiarrak. Frantziako Alpeetan mila metroko garaieran dagoen Jouxeko gazteluko presondegian hil zen Toussaint Louverture, 54 urte zituela, 1803ko apirilaren 7an, hotzez, gosez eta penaz, bere biografoen esanetan.

Hala ere, hil aurretik berak iragarritakoa bete zen: “Beltzen askatasun arbolaren enborra baino ez duzue moztu. Baina berriz erneko da, bere sustraiak asko eta sakonak baitira”. Jean-Jacques Dessalinesek ekarri zuen behin betiko independentzia

Independentziaren zorra: Haitiren miseriaren jatorria

Haitik munduko ekonomia pobre eta menpekoenetakoa du. Bere urteko aurrekontuaren %60 kanpo laguntzarekin finantzatzen da eta erbestean dauden haitiarrek sorterrira bidalitako diruak BPGaren ia herena suposatzen du. Munduan ez da halakorik. Prezioen gorakada, berriz, %22koa izan zen iaz, eta hori hamar biztanletik seik egunean 2 dolar baino ez dituztenean, herrialde hartan dozena bat arrautzak balio duena baino gutxiago.

Miseria horrek guztiak badu bere azalpena Haitiren iragan iraultzailean: mendekuaren ondorio da. 1804an independentzia lortu zuenetik, Haitik hainbat kolonien askapen prozesuan lagundu zuen. Alexandre Petión presidentek Simon Bolivar beso zabalik hartu zuen 1815ean eta munizioa eta soldaduak eskaini zizkion. Antzeko eragina izan zuen Martinika, Jamaika, Mexiko eta AEBetako

borroka antikolonialeetan.

Baina elkartasunari hegoak moztu eta iraultzari prezioa jarri nahi izan zion kolonialismoak. 1825ean Frantziak –elite haitiar frantsestua- ren laguntzaz– derrigortu zuen kolono-ohiei 150 milioi urrezko frankorekin konpentsatzera, lurretan eta esklabotan izandako galerengatik. Mehatxu gisa Port-au-Prince hiriburua blokeatzeko ontzi flota bidali zuen horretarako. Formula borobila zen: dirua frantziar bankuekin zorpetuz baino ezin zuen lortu Haitik –kanpo zorra sufritzen lehen herrialdea izan zen, beraz–. “Independentziaren zorra” deitu diote horri, nolabaiteko nazioarteko onarpen diplomatikoa lortzeko balio izan baitzion. Gerorako estortsioa berriz negoziatu eta 90 milioi eurora jaitsi ahal izan zuen, baina haitiarrek 1947 urtera arte ordaindu behar izan zuten zorra, gastu pu-

blikoaren zati handi bat horretara bideraturik.

2003an Jean-Bertrand Aristide Haitiko presidente ezkertiarrek –demokratikoki hautatutako lehen– ozen aldarrikatu zuen berez “Frantzia dela Haitiren zordun”, eta ostutako urrezko franko horiek gaur egun 21.000 milioi dolar lirakekeela. Baina François Hollandek irlara bidaiatu zuenean –bi mendetan lehen aldia zen frantziar presidente batek herrialdea bisitatzen zuela–, zor “moralaz” baino ez zuen hitz egin.

HAITIKO URREA NEW YORKEKO BANKUAN

Haitiren menpekotasunak jarraipena izan zuen AEBen inbasioarekin. Alemaniarrek Karibe itsasoan zuten eragin gero eta nabarmenagoa eragotzi nahirik, 1915etik 1934ra okupatu zuten *marineek* herrialdea. Inbertitzaile estatubatuarrek lur-

Haitirentzat, Toussaint Louverturek ez bezala, honek ez zuen gupidarik izan harrapatzen zituen zuriekin eta basakeria berak eginez erantzun zien frantsesei⁶. Leclerc Napoleon bidalitako azken gutuna etsigarria da: “Mendietako beltz guztiak hil behar ditugu eta lautadan bizi direnen erdiak, hori gabe ez da inoiz bakerik izango kolonia honetan”.

ASKATASUNA ZER DEN ESKLABOARENTZAT

Leclerc bera sukar horiak jota hil zenean, honen ordezkoiari,

Rochambeauko kondeari 20.000 soldadu gehiago bidali zizkioten estermiozko gerrarekin jarraitzeko. Hala, mulatoak ere sarraskitzen hasi zen, zuriaren supremazia bermatzeko. Berriz ere beltzak leporaino lurperatzen hasi ziren euliek irentsi zituzten, zakurretara botatzen zituzten, itsasoan ito... Baina hura jada gerra popularra bihurtu zen haitiarrentzat, eta Frantziako banderari zuri kolorea kenduta borrokatu zuten: “Leclerc hil ondoren gertatu zena, ikasle orok ezagutu beharko lukeen his-

toriako orrialde horietako bat da –dio Jamesek–. (...) Frantsesak Saint-Dominguetik kanporatu zituzten gizon, emakume eta haurrek ez dute zer inbidiaturik independentziaren alde beste edozein lekutan edo beste edozein garaitan borrokatu direnei. Eta arrazoia sinplea da. Azkenean ulertu zuten independentziarik gabe ezingo zutela askatasuna gorde, eta *askatasuna askoz zehatzagoa zen esklabo ohientzat*, frantziar demokrazia politikoaren figura lausoak baino” (etzana guk jarria).

⁶ Orain arteko historia ofizialek Dessalinesen irudi gogor eta odoltsua eman arren, Haitin bere paper garrantzitsua aspaldi aitortu dute, iraultza hobekiago ordezkatu zuelako.

hoberenak eskuratu zituzten Bana-na Fruit konpainiarentzat, esportazioarako monolaborantza ezartzeko asmoz, eta Haitiko bankuan zeuden urte erreserbak –garai hartako 500.000 dolar– New Yorkeko National City Bank-era eraman zituzten, Estatu Departamenduaren artxiboan irakur daitekeenez, “AEBei bankuaren kontrola emanez”. Okupazioaren kontrako mugimenduak (ikasleak, feministak, langileak...) gogor zapaldu zituzten soldadu estatubatuarrek: milaka haitiar hil eta bortxatu, eta natur baliabideak arpilatu zituzten hogeitau horietan.

Orduetik hona Haitin izandako estatu kolpe eta diktaduretan ere erraz antzematen da AEBen esku beltza. 1957an François Duvalier izeneko medikuak herritar beltzen babesaz bereganatu zuen boterea, baina *Papa Doc* laster egin zen AEBen aliatu “antikomunista” eta erreprezio basatia ezarri zuen. Haren oinordeko Jean-Claude Duvalier *Baby Doc*-ek erregimen odoltsuarekin jarraitu zuen. 30 urte horietan 40.000 lagun desagerrarazi zituztela uste da. 1986an, AEBen babesa galtuta, *Baby Doc*-ek herrialdea utzi behar



Haitiarren merkatua. Herrialdearen egungo miseria, bere iragan iraultzaileagatik nazioarteak ezarritako mendeku politikaren ondorio zuzena da.

izan zuen protesta artean –Frantzian hartu zuen babes–, baina aurretik 500 eta 900 milioi dolar artean lapurtu zituen, herrialdea berriz ere hondamendi ekonomikoan utzirik.

1987ko Konstituzioa ezarri ondoren Aristidek 1990eko hamarkadan hitzemandako erreforma progresistek ezin izan zuten aurrera egin, esku-hartze militarrek tarte-

ko. 2004ko estatu kolpetik, praktikan enegarren interbentzioa dena jasaten ari da Haiti, eta erakunde altermundialista askok salatu dutenez Nazio Batuen Egonkortasun Misiok (MINUSTAH) alferrikako diru xahuketa eta kolera baino ez ditu eraman garai batean “Antilletako perla” deitzen zitzaion lurralde hartara.

1803ko azaroaren 18a, Vertières, Cap-Français hegoaldea. Frantzesak setiaturik daude euren menpe dagoen azken hirian: Dessalinesek amaierako eraso agindu duenean, François Capois izeneko ofizial errebelde batek –*Capois-La-Mort* edo Capois-heriotza ezizenez ere ezaguna–, aurrera egiten du mosketeen eta artilleriaren suaz gaindi, “Jarraitu niri, jarraitu niri!” oihukatzen duela. Irudi hori Haitiko independentziaren ikono bilakatu zen geroago⁷. Gau hartan ber-

tan Rochambeauk irla ebakuatuko zuela erabaki zuen eta bere burua itsasoa kontrolatzen zuten britainiarrei entregatu. Kanpaina hartara bidalitako 60.000 soldaduetatik apenas zeuden bizirik gutxi batzuk, eta Ingalaterrako kartzeletan usteldu ziren. Handik hilabetera, independentzia adierazpena irakurri eta Antilletako errepublika berriari “Haiti” izena jarri zioten, geroago Dessalinesek bere burua enperadore izendaturik.

Haitiko iraultzak esklabotzaren

abolizioaren eta askatasunaren pindarra piztu zuen beste kolonietan. Irla hartatik ihes egin behar izan zuten milaka zuri lur-jabeen eta esklabisten estampa, askoren imajinarioan geratu zen hurrengo mende osoan. Esplotatzaileei ikara eta esplotatuei miresmena sorrarazten zien irudia zen. Baina batez ere, CLR Jamesi hitzak ostuz, milioika pertsonen patua eta hiru kontinentetako korrante ekonomikoak aldatuko zituen historia da hau. Historia uni-bertsal bat.

⁷ Bataila horretan eta beste batzuetan emakumeek izandako parte-hartzea handia izan zen. Cécile Fatiman zen emakume lider eza-gunetako bat, ama afrikarra eta aita korsikarra zituen, eta Haitiko mugimendu feminista indartsuaren erreferenteetako bat da.

ARGIA EGUTEGIA 2022

*Egunero efemeride bat.
Burujabe garez, historia guk ere idatz dezagun.*



10€
+4€
bidalketa
gastuak



Era guztietako gertaerak topatuko dituzu orriotan, egunez egun. Asko hedabide handienek beren errepaso historikoetatik kanpo uzten dituztenak dira. Injustizia isilaraziak eta horien aurkako altxamenduak, langile borroka azpimarragarriak, ekintzaile sozialen ekimen anitz edo Euskal Herriko panorama politikoa astindu zuten albisteak.

AURRE-SALMENTA:
AZOKA.ARGIA.EUS • 943 37 15 45